

“Egin dezagün iraultza, ezkerrek xurga dezala zakil eta arrautza!”

Tittika Rekalt | Jokalaria

Eta pastoralara hankaz gora jarri zuen kristaua.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Askatasuna behar duela sortzaileak...

Gaixotasun mental pixka bat ere bai, ego elegante bat eta, prefosta, sosa, bena hori hani-txetan ahazten zaie emaita...

Zorionekoa zu, bi trajeria dituzu sortu!

Aipatü gabe hirugarrena, Xiberoako belardi ederren üztea, Gipuzkoako porlan landen gozatzeko... Ai, ametsaren lana, ait'amaren erranetik barna ibili bagina...

Erbesteratu zara, beraz, azkenetan baita Zuberora.

Nene, ezetz, Gipuzkoara agertü niz ene xiberoatar ürrinarekin, eta garaieko galtzontzilo “kanguru”ekin, hebenko jendeak pijoikeriak eta yankeekeriak bazter ützt ditzan berriz Aitorren potro zaharrei lotzeko. Hori da nire misioa.

Baina ihes eginik akabo euskal arima, pastoralara, Mauleko espartinak!

Errak hi! Eta errügbia? Ahazten dük errügbia, mündüko kirolik gay eta erotikoen, hainbeste gizon giñarritsü algar laztantzen lokatzaren erdian! Zer beroaldiak!

Zuberora hiltzean, nora joango dira Hegoaldeko superabertzaleak?

Errügbi egitera, potro eta barrabil ikutzerara... Betidanik esküindar nagusia izan da langilearen xurgazale... Egin dezagün behinkoz iraul-

tza, ezkerrek xurga dezala zakil eta arrautza!

Pozik izango duzu Zuberoko Turismo bulegoa...

Xiberoaren trajeria da ere, euskaditarrek beti ari zaretela gütaz plañitzen. Astebürü bat Irati eta Kakuetan, eta hara, gütaz iritzi emaittea badatorrela Vaskongadas hori! *Hombre*, guk zerbait ba ote diogu zuen kirol adikzio tonto horretaz?

Badaezpada, ez dizut Matalaz aipatuko.

Matalaz, beti Matalaz, azkenean zer dakigü hartaz, apez bat zela? Ez ote dea aski eüskal herri hontan? Eta gainera ze gudari txarra... Lau soldado menderatü eta kükürrükü! Zortzi agertü eta lekütü!

Tira, orain fikziozko film luzeak egiten dira zubereraz: 10.000 ikusle gehienik.

Gehi ezker abertzale güzia! Ijaaaaaa! Guri fama, guri neskak, guri Honolülü!

Txantxa ugari, baina diru eskean gero...

Sosak gaüza hanitx permetitzen dütü, bena ametsak ez! Eüskadik dio: egin dezagün otoitz; gük: egin dezagün amets! Bainan, eman dirua hala ere Xiberoari, ok?

Joan aurretik: zer eguraldi Zuberora aldean?

Gaüak beltz, egünak argi. Sohütan Aranbeltz, Larrainen Bagargi. ■